HITZARMENA

Hernaniko Udala, Club Deportivo Hernani eta Hernani Club Rugby Elkartea

Zubipe eta Landare zelaien eremuan uholdeek maiz sortzen dituzten ondorio larriekin kezkatuta daude hitzarmena sinatzen duten hiru aldeak. Hori dela eta, Hernaniko Udalak, CDH Hernanik eta Rugby Elkarteak konpromisoa hartzen dute futbol eta errugbi instalazio horientzako irtenbideak bilatzeko asmoz elkarlanean aritzeko. Hiru aldeek lehenesten dute instalazioak dauden lekuan gelditzea eta horiek hobetzea.

Hiru sinatzaileek honako pauso hauek ematea adostu dute:

- Zubipe eta Landare eremuetan uholdeen arriskua gutxitzeko egin daitezkeen esku-hartzeen inguruko proiektu bateratua bidaltzea Ura Agentziari. Hernaniko Udalak hori egiteko baliabideak jarriko ditu.
- Hernaniko Udalak 2.000.000 euro erreserbatuko ditu Zubipe eta Landare eremuetako instalazioak hobetu eta uholdeei aurre egiteko Ura Agentziak baimendutako esku-hartzeak egiteko. Aurrekontu hori gutxieneko kopurua izango da.
- Hiru sinatzaileek egoki ikusten dute, presazko konponketak ez diren kasuetan, egokitzapen proiektuak egiten hasi aurretik Ura Agentziaren erantzuna jaso arte itxarotea.
- Hernaniko Udalak konpromisoa hartzen du Zubipe eta Landareko eremuei behin-betiko konponbide bat emateko eta horiek gauzatu ahal izateko udalaz gaindiko erakundeekin beharrezkoak diren harremanak eta hitzarmenak lantzeko.

Hiru aldeek akordio honekiko adostasuna adierazi dute eta sinatzen dute bi mila eta hogeita biko martxoaren 22an

Hernaniko alkatea

Xabier Lertxundi

CDHko presidentea

Martxelo Ezponda

HCREko presidentea

Joxe Kurutz Elosegi